

1. Online parte-hartzearen emaitzak

1.1. Online inkestaren ezaugarriak

Online inkesta parte-hartze presentzialaren tresna osagarri gisa eratu da, debate-tailerretan parte hartzeko aukerarik edo interesik ez duten pertsonentzat, edota tailerretan parte hartu ondoren ekarpen indibidualak ere egin nahi dituztenentzat

Erantzunak guztira: 12

EUSKARAZ	1	8 %
GAZTELANIAZ	11	92 %

Noiz egin den: 2016ko martxoaren 9tik apirilaren 10era bitarte

Inkestan 21 helburu zehazten ziren, nekazaritzako elikagaien katearen faseen arabera sailkatuta, ematen zieten garrantzia-maila kontuan hartuta 1etik 5era bitartean balioesteko. Galdera itxiez gain, katearen fase bakoitzerako ekarpen libreak egiteko aukera ere bazen.

1.2. Online inkestaren edukia

Zein helburu Gasteizerako?

*Otsailaren 23an eta 24an, aldez aurreko diagnostikoa alderatu eta balioztatzeko lantegia egin zen. Saio horretan, abiapuntuko diagnostikoa aztertu zen, nekazaritzako elikagaien estrategia jasangarrirako **helburu orokorrak** definitu eta lehentasunak ezartzearen.*

*Diagnostiko-agirian 60 helburutik gora proposatzen ziren, nekazaritzako elikagaien katearen fase bakoitzean sailkatuta eta hiru kategoriaren arabera banatuta: **gizartea, ingurumena eta ekonomia**.*

*Proposatutako helburuak **aztertzer**a gonbidatzen zaitugu, eta Gasteizerako egokientzat eta bideragarrientzat jotzen dituzunak adieraztera, **garrantzi maila** zehaztuz (1 EZ DA GARRANTZITSUA - 5 OSO GARRANTZITSUA DA); beste helburu batzuk ere **iradoki** ditzakezu.*

Produkzio faseko helburuak

Gizartea

- *Landa-populazioaren sendotzea bermatzea.*
- *Landa-populazioaren lan-baldintzak eta arreta hobetzea.*
- *Nekazari eta abeltzain gazteak sor daitezen sustatzea.*
- *Landa-produkzioaren alorrean emakumeen berdintasuna aldeztea.*
- *Gizarte kohesioa eta integrazioa sustatzea, hiriko eta hiri inguruko aisialdiko nekazaritzaren bitartez.*
- *Tokiko nekazaritza eta natura paisaiaren balio kultural eta estetikoak mantentzea.*

Ingurumena

- *Landa-lurraren galera eragozteia.*
- *Landutako azalera handitzea.*
- *Hiriko eta hiri inguruko nekazaritzarako azalera handitzea.*
- *Nekazaritza ekologikoa eta sargaien murrizketa sustatzea.*
- *Tokiko nekazaritza eta natura paisaiaren balio ekologikoak eta biodibertsitatea mantentzea.*
- *Abeltzaintza estensiboa sustatzea.*
- *Animalien ongizatea bermatzea.*
- *Azpiegitura berdeen eta haiek ematen dituzten zerbitzu ekosistemikoen jarraitutasuna sustatzea.*

Ekonomia

- *Tokiko produkzioa handitzea.*
- *Tokiko produkzioa eta kontsumoa doitzea, ahal den neurrian elikadura-burujabetza bermatuz.*
- *Nekazaritza produktuen kalitatearen kontrola ziurtatzea.*
- *Nekazari eta abeltzain gazte berrien prestakuntza bermatzea.*
- *Etekinaren eta eragin ekologikoaren arteko erlazioa hobetzea.*
- *Azienda autoktonoen kopurua handitzea.*
- *Nekazaritza ekologikoaren alorreko berrikuntza sustatzea.*
- *Hiri autokontsumoko praktikak sustatzea.*

Zure ustez, bada produkzio fasean ezar daitekeen beste helbururik?

Eraldaketa faseko helburuak

Gizartea

- *Nekazaritzako elikagaien industriaren barruan gizarte eta lan-baldintzak eta osasun baldintzak hobetzea*

Ingurumena

- *Elikagaien biltegitratze, izozte eta prozesatzearekin lotutako energia-gastuak eta emisioak murriztea.*
- *Kontserbagarri eta gehigarri kimikoak murriztea.*
- *Ontziratze eta enbalaje birziklagarriak sustatzea.*
- *Animalien sufrimendua minimizatzea.*

Ekonomia

- *Prozesatze eta enbalaje beharrak murriztea.*
- *Etiketatzeko ekologikoa sustatzea.*
- *Eraldatze zentroak tokiko produkzio eremuetara hurbiltzea.*

Zure ustez, bada eraldaketa fasean ezar daitekeen beste helbururik?

Banaketa eta merkaturatze faseko helburuak

Gizartea

- *Produktu freskorik gabeko "elikagai basamortuak" eragozteak.*
- *Hiriko espazio publikoaren bizitasuna sustatzea, berdeguneetan nekazaritzarako erabilera txertatuz.*
- *Zentro publikoetarako elikagaiak erosterakoan jasangarritasun irizpideak kontuan izateko politikak sustatzea.*

Ingurumena

- *Gertuko zirkuituak sustatzea, elikagaiak egin beharreko kilometroak gutxitzeko.*
- *Elikagaien garraioarekin lotutako energia-gastuak eta emisioak murriztea.*
- *Garraiobide jasangarrien bidezko banaketa erraztea.*

Ekonomia

- *Zirkuitu laburrak sustatzea, bitartekari kopurua murriztuz.*
- *Operadore handien jokabideak (lobby eta prezio kontrola) kontrolatzea.*
- *Azalera handiko saltokiek hiriguneetan eragiten duten erabilera xurgagailuaren efektua eta monofuntzionaltasuna eragozteak.*
- *ekoizleak eta kontsumitzaileak elkarrengana hurbiltzea.*
- *Elikagaiekin lotutako landa turismoa sustatzea.*
- *Tokiko etiketa ekologikoak sustatzea.*

- *Hiriguneetan elikagai freskoen saltoki txikiak sustatzea.*
- *Produktu ekologikoen aldian behingo kaleko azokak sustatzea.*
- *Publizitate gastuak murriztea.*

Zure ustez, bada banaketa eta merkaturatze fasean ezar daitekeen beste helbururik?

Kontsumo faseko helburuak

Gizartea

- *Produktu freskoen kontsumoa handitzea.*
- *Herritarren elikadura-segurtasuna bermatzea.*
- *Herritarren artean elikadura osasungarriko jarraibideak sustatzea, bereziki umeen artean.*
- *Herritarren artean sukaldaritza eta gastronomia hezkuntza sustatzea, bereziki gazteen artean.*

Ingurumena

- *Produktu ekologikoen kontsumoa handitzea.*
- *Haragi eta animalia koipeen kontsumoa murriztea.*
- *Aurrez prestatutako produktuen eta produktu izoztuen produktuen kontsumoa murriztea.*
- *Elikagaien biltegitratze, kontserbatze eta kozinatzearekin lotutako energia-gastuak eta emisioak murriztea.*
- *Energia-kontsumoa murrizten eta elikagaien ezaugarri organoleptikoak babesten dituzten sukaldaritza teknikak sustatzea.*

Ekonomia

- *Tokiko produktuen kontsumoa handitzea: tokiko produkzioa eta kontsumoa doitzea.*
- *Jatetxeetan produktu lokal eta ekologikoen kontsumoa sustatzea.*

Zure ustez, bada kontsumo fasean ezar daitekeen beste helbururik?

Bazterketa faseko helburuak

Gizartea

- *Produkzio eta kontsumoko elikagai-soberakinak kaudimen ekonomikoko arazoak dituzten herritar taldeei bideratzea.*

Ingurumena

- *Elikagaien hondakin organikoak produkzio zikloa berrelikatze baliatzea, ongarri natural bihurtuta.*
- *Ontzi, enbalaje eta bilgarrien gaikako birziklatzea sustatzea.*

- *Berriz erabiltzeko ontzien erabilera sustatzea.*

Ekonomia

- *Merkaturatze eta kontsumoko elikagai-soberakinak ahalik eta gehien murriztea.*
- *Enbalaje eta bilgarrien erabilera optimizatu eta murriztea.*

Zure ustez, bada bazterketa fasean ezar daitekeen beste helbururik?

1.3.Inkestaren emaitzak

Proposatutako **61 helburuetatik**, erantzun dutenen ehuneko handi batek "oso garrantzitsu" (5 puntu 0tik 5era arteko goranzko eskalan) iritzitako **25 helburuak** zerrendatu dira hurrengo orrialdeetako tauletan.

OHARRAK

Erantzun diren inkesten kopuru txikia dela eta, egokiago iruditu zaigu estatistikoki adierazgarrienak diren erantzunak baino ez sartzea emaitzen analisian, zalantzaezinezko adostasun-maila handiagoa islatzen dutelako; gutxieneko adostasun-portzentajea % 60 izatea erabaki da, hau da, bat datozen 7 erantzun helburu jakin baterako. Dena dela, aipatu beharra dago helburu asko, adostasun-maila txikiagoa lortu badute ere, erantzuleetako batek gutxienez oso garrantzitsutzat jo dituela, eta horietako batzuek % 50eko adostasuna lortu dutela garrantziari dagokionez.

Adostasuna kontuan hartuz osatu diren lau multzoetan, oro har, nahiko era orekatuan jaso dira fase bakoitzari dagozkion helburuak, baina 1. taldean, adostasun gehien lortu duten 14 helburuen artean eraldaketa faseak oso leku txikia du, helburu bakarra (1) jaso baita, eta banaketa eta merkaturatzea nagusitzen dira.

Iraunkortasunaren dimentsioei dagokienez, lehen hiru taldeetan dimentsio ekonomikoarekin lotura handiagoa duten helburuak dira nagusi; laugarren taldean, berriz, ingurumen dimentsioa gailentzen zaie besteei. Oro har, dimentsio soziala da gutxien aipatua.

Edonola ere, zehaztu beharra dago dimentsioetako edozeinek beste bien osagaiak barne hartzen dituela, zalantzarik gabe. Dimentsioen arteko banaketa erreferentziazko esparrutzat ezarri zen aurretiazko diagnostikoaren agirian jasotako iraunkortasun-helburuen taulan (4.3 atala, 52-54 or.), zeina bigarren inkestarako oinarritzat baliatu baita. Bereizketa hori batez ere irizpide praktiko bati jarraituz egin zen, helburu bakoitzarekin lotutako dimentsio nagusia

azpimarratzearen, eta hartara errazago identifikatzearen zein neurri har daitekeen hori lortzeko.

Inkestatu kop.	zenbakia	Erref.	25 IRAUNKORTASUN-HELBURU ELIKAGAIEN NEKAZARITZAKO SEKTOREAN (garrantzitsuentzat jotako 14 helburuak) Talde bakoitzaren barruan, zenbakiak ez dute lehenetasun hurrenkera adierazten: helburuak nekazaritzako elikagaien katearen faseen arabera daude sailkatuta	FASEA					JASANGARRITASUNA			
				P T DC C DE	produkzioa eraldaketa Banaketa eta merkaturatzea kontsumo bazterketa	P	T	DC	C	DE	S	A
1. TALDEA 10 (83,3 %)	1	PA4	• Nekazaritza ekologikoa eta sargaien murrizketa sustatzea									
	2	PA5	• Tokiko nekazaritza eta natura paisaiaren balio ekologikoak eta biodibertsitatea mantentzea									
	3	DCE4	• Ekoizleak eta kontsumitzaileak elkarrengana hurbiltzea									
	4	CS3	• Herritarren artean elikadura osasungarriko jarraibideak sustatzea, bereziki umeen artean									
	5	DEE1	• Merkaturatze eta kontsumoko elikagai-soberakinak ahalik eta gehien murriztea									
2. TALDEA 9 (75 %)	6	PE1	• Tokiko produkzioa handitzea									
	7	DCE1	• Zirkuitu laburrak sustatzea, bitartekari kopurua murriztuz									
	8	DCE7	• Hiriguneetan elikagai freskoen saltoki txikiak sustatzea									
	9	CE1.	• Tokiko produktuen kontsumoa handitzea: tokiko produkzioa eta kontsumoa doitzea									
	10	CE2.	• Jatetxeetan produktu lokal eta ekologikoen kontsumoa sustatzea									
	11	DES1	• Produkzio eta kontsumoko elikagai-soberakinak kaudimen ekonomikoko arazoak dituzten herritar taldeei bideratzea									
3. TALDEA 8 (66,7 %)	12	TA2	• Kontserbagarri eta gehigarri kimikoak murriztea									
	13	DCS3	• Zentro publikoetarako elikagaiak erosterakoan jasangarritasun irizpideak kontuan izateko politikak sustatzea									
	14	DEE2	• Enbalaje eta bilgarrien erabilera optimizatu eta murriztea									
				3	1	4	3	3	3	3	8	

Inkestatu kop.	zenbakia	Erref.	25 IRAUNKORTASUN-HELBURU ELIKAGAIEN NEKAZARITZAKO SEKTOREAN (inkestatuen % 58,3k garrantzitsuentzat jotako hurrengo 11 helburuak)	FASEA					JASANGARRITASUNA											
				P T DC C DE	produkzioa eraldaketa Banaketa eta merkaturatzea kontsumo bazterketa	S gizartea A ingurumena E ekonomia	P	T	DC	C	DE	S	A	E						
%																				
4. TALDEA	7 (58,3%)	15	PA1.	• Landa-lurraren galera eragozte																
		16	PA7.	• Animalien ongizatea bermatzea																
		17	TA1.	• Elikagaien biltegitratze, izozte eta prozesatzearekin lotutako energia-gastuak eta emisioak murriztea																
		18	TA3.	• Ontziratze eta enbalaje birziklagarriak sustatzea																
		19	TE1.	• Prozesatze eta enbalaje beharrak murriztea																
		20	DCA2.	• Elikagaien biltegitratze, izozte eta prozesatzearekin lotutako energia-gastuak eta emisioak murriztea																
		21	DCE3	• Azalera handiko saltokiek hiriguneetan eragiten duten erabilera xurgagailuaren efektua eta monofuntzionaltasuna eragozte																
		22	DCE8.	• Produktu ekologikoen aldi behingo kaleko azokak sustatzea																
		23	CS2.	• Herritarren elikadura-segurtasuna bermatzea																
		24	CS4.	• Herritarren artean sukaldaritza eta gastronomia hezkuntza sustatzea, bereziki gazteen artean																
		25	DEA2.	• Ontzi, enbalaje eta bilgarrien gaikako birziklatzea sustatzea																
Guztiko partziala				2	3	3	2	1	2	6	3									
Guztira				5	4	7	5	4	5	9	11									

BANAKOEN EKARPENAK

Zure ustez, bada produkzio fasean ezar daitekeen beste helbururik?

No. Lo que creo que no importa si se ecológica sino que en general, hay que reducir la ganadería y por consiguiente un trato no "natural" de los animales y el consumo de carne que no solo no es necesario sino dañino

La pregunta PE8 [*Promover las prácticas de autoconsumo urbano*] dudamos entre 3-4 porque para promover el autoconsumo debería estar garantizado y por el clima, no hay una gran disponibilidad.

Zure ustez, bada eraldaketa fasean ezar daitekeen beste helbururik?

Eliminaría en la medida de lo posible el uso de conservantes y aditivos químicos

Zure ustez, bada banaketa eta merkaturatze fasean ezar daitekeen beste helbururik?

Comercio de proximidad y progresiva eliminación y re-utilización de las grandes superficies para usos alternativos

Zure ustez, bada kontsumo fasean ezar daitekeen beste helbururik?

La transformación de alimentos puede ser sostenible y necesaria y en el País asco, las PYMES (pequeñas y medianas empresas, en su gran mayoría) también tienen un papel importante.

Zure ustez, bada bazterketa fasean ezar daitekeen beste helbururik?

Lo más importantes es que se canalicen los excedentes alimentarios